

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko ekainaren 30a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Sakana • Igerilekuetara joaten direnek euskaraz egin dezaten hainbat ekimen abiatu ditu Mankomunitateak
Marcos Reparaz • «Jendeak eskatzen duenaren arabera itxuratuko da Oihan Ederra»

Axularren ‘Gero’ Igerilekura eramateko modukoa?



Urdazubiko

idazle handiaren

Gero liburu mardula igerilekuan, hondartzan edo etxe ondoko belardian irakurtzekoa ote den jakin nahi izan dugu; hots, oporretan, eguzkitan, leitzeko modukoa ote den Gero. Egun jende gutik irakurtzen duela gauza jakina da. Baina irakurtzen dutenak gai ote dira zerura joateko bidea erakusten duen euskal klasikoa oporretan irakurtzeko? Sei literaturazalek eman dute beren erantzuna.

Sakana •

Euskara freskatzan

Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren kanpaina martxan da

Udan ere ez du etenik Euskara Zerbitzuaren lanak. Aurreko urteetan bezala, eskualdeko igerilekuetan kanpaina egiten dute, eta euskara ikasi edo ikasten ari direnentzako laguntza deialdia ere zabaltzen dute.



Sakanako igerilekuetara joaten direnek euskaraz egin dezaten, hainbat ekimen abiatu ditu Mankomunitateak • EGUNKARIA

UDARI BEGIRA Euskara Zerbitzutik bultzatzen duten kanpaina handienak Udan euskaraz blai du izena, eta Sakanako kirol batzordearekin elkarlanean egiten da. Aurten, eta dagoeneko zazpi garren aldia da, Sakanako bederatzi igerilekuetan euskararen erabilpena bultzatzeko kanpaina antolatu dute berriro ere.

Uda garaian, gauza jakina da igerilekuek garrantzi handia dutela herrietako bizitzan. Mundu guztia joaten da bertara, eta jendearen harremanetarako leku ezin hobe bihurtzen dira kirol instalakuntza hauek. Pello Astiz euskara teknikariak esan duenez, igerilekura doan jendeari estimulu positiboak eman nahi zatzio, erlazioatzeko erabiliko duen hizkun-

tza euskara izan dadin. Horretaz aspaldi ohartuta daude Euskara Zerbitzuko teknikariak. Hori dela eta, eskualdeko igerilekuetako arduradunekin harremanetan jarri dira, eta haur hainbat proposamen egin dizkiete. Horietako bat igeriketa ikastaroei dagokiena da. Hala, aurten Ziordiko, Olaztiko, Urdiaingo, Etxarri-Aranazko, Arbizuko eta Lakuntzako haurrendako igeriketa ikastaroak euskaraz izanen dira. Altsasun, Uharteko, Arakilen eta Irurtzunen, berriz, euskaraz eta gaztelaniaz emanen dira, ikasleek aukeratzeko dutenaren baitan. Helduen kasuan, izena ematerakoan zehaztu beharko

dute zein hizkuntza nahiago duten, eta eskaeraren arabera sortuko da taldea.

Igerilekuetan, ordea, ez dira igeriketa ikastaroetara mugatzen udan egiten diren ekitaldiak. Badira makina bat zerbitzu ere. Horietan ere pentsatu dute Euskara Zerbitzuko teknikariak eta, hala, igerilekuetako arduradunei proposamen zehatza egin diete. Publikoarekiko harremanak dituzten langileek, esaterako, atezainek, tabernariak, sorosleek eta abarrek euskara ederki jakitea eskatu diete. Ez hori bakarrik, megafonia eta kartelak elebitan ematea ere eskatu zaie gestioaz arduratzen diren udal eta elkartei.

Ikasteko diru laguntzetarako deialdia

Bestalde, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak azken kurtsoan, abuztuaren 31 bitartean, euskaraz ikasten aritu diren ikasleendako diru laguntzen deialdia zabaltzen berri du. Hauen bidez, euskara ikasteko erraztasunak eman nahi direla aipatu du Pello Astiz teknikariak. Diru laguntzan interesa duenak jakin dezala eskaera orri bat eta hainbat agiri aurkeztu beharko dituela Euskara Zerbitzuan irailaren 29a baino lehen. Edozein argibide nahi izanez gero 948-464840 telefonora deitu 08:00etatik 15:00etara.

→ Alfredo Alvaro Igoa

Iruñea

‘Ama’ ikuskizuna Gaiarren bihar

JULIAN GAIARRE tenorearen omenez bihar egiten diren ekitaldien barnean, 20:00etan, Gaiarre antzokian Ama izeneko ikuskizuna eskainiko dute, Jean Michel Bedaxagar konpositore zuberotarraren lan ezaguna. Ikuskizuna Nafarroako eta Zuberoako folkloreak erakustaldia da, zeinetan Gaiarren bizitza errepresentatzen den dantza, musika eta kantuen bidez. Bedaxagarrek zehaztu duenez, Ama ez da pastorala, baina antzekotasun anitz ditu.

Ama iragan ekainaren 3an estreinatu zuten Maule. Bertan 50en bat figurantek parte hartu zuten, horien artean Otsagiko eta Mauleko dantzariak, baita Bedaxagarrek berak ere. Biha, Eduardo Zubikoa Elizondoko tenoreak egiten du Gaiarrerena.

Bedaxagarrek Pierre Bordazaharre Etxahuri eta Julian Gaiarrereri egiten dien omenaldia da Ama. Baina biharkoan Gaiarrereri eskainitako zatia emanen dute soilik. Ikuskizunak ordu bete pasatxo irauten du. Produkzio hau Mauleko Uharteko elkarteak antolatu du, Iruñeko Kauteroen elkartearekin batera.

Ama ikuskizunaz landara, beste zenbait saio izanen dira bihar Erronkariko tenore famatuaren omenez. Besteak beste, Luis Les eta Fabian joteroek, Julian Gaiarre abesbatzak eta Los Amigos del Arte errondailak parte hartuko dute.

→ Fernando Hualde

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Lizuntasuna manifestua

Ergelkeria, ankerkeria, totelkeria, itxurakeria, mozkeria eta abarrik bai; lizunkeria ordea, ez. Ez eta ez. Berandu nabiltzen jakin badakit, baina euskararen mugak ezartzen, kentzen, goratzen eta txikitzen ari garen (?) honetan hona datorkizue ene proposamen lizuna: Ibon Sarasolari berte aje bat proposatzen diot, erabileratik urruti antzean dagoena eta egoera sozialean barne-barnean txertaturik dagoena.

Proposamena, harira joz, laburra baita eskaintzen diguten gunea, haxe da:

LizunKeria kontzeptua lizunTASUNara iraganaz ordezkatzeko dezagun (?) publikoki proposatzen dut.

Marketing-a da euskal munduak duen gabetzia bat. Gutariko orok entzun edota erran du inoiz:

egia da, euskaldunok ez dakigu saltzen gure..... (hemen ele ezberdinak ipin daitezke), katalanak bezala (katalanen ordezkari bertze nazio, etnia, leinu para dezakegu).

Frogatua da industria arloan eta berdin aplikatu dakioke gureari; patata frijituak, kasu, edota libia salmentak memoratu nahi izanez gero ontzia, poltsa, botila aldatzearekin aski da. Polizia da paradigmen salbuespen bakarra.

Erotismoa alderik alde dugu euskal apalean goroldio edota zikinkeriarekin. Ez da itxura, inondik inora euskal erotismoa sortzen ari den garai alai hauetan kristautasunaren (ala kristaukeriaren) begirada zorrozpean sorturiko elea bere horretan uztea.

Orain dela sei mendeko koadroa eraberritzen

dugu, duela berrehun urteko usadioa egokitzen dugu (Irun eta Hondarribian salbu), orain dela auzkaloko trikuharria txukundu eta lizuna kentzen diogu eder dakigun... eta lizunkeria ez ote dugu bada berraztertu behar? Bai.

Eskeletara eraman ditugu sexologoak, aukera sexual ezberdinak daudela gero eta barneratuago du jendeak, oro har sexua gure bizitzaren bertze puxka bat dela naturalkeriaz jabetu gara. Naturaltasunez, barka. Beraz, sexua normaltasunez bizi nahi badugu, euskaraz bederen, lizunkeriari oskolaria alda diezaiogun, LIZUNTASUNA aldarri dezagun gaurtik eta betiko.

Manifestuarekin bat egiteko mahaiak paratuko dira Euskal Herriko herri zein auzo guztietan, uztailearen 3an, goroldioaren nazioarteko egunean.

Leitza • 'Marmari' aldizkaria kalean da

Marmari taldeak Leitzako aldizkari gaztea kaleratu du

Pasa den urtean sortu zen, Leitzan Marmari, Euskara Taldea. Marmari Leitzako bederatzi gaztek osatzen dute eta, diotenez, bereziki gazteen esparruan lan egiteko sortua da taldea.



Marmari aldizkari berria izen bereko euskara taldeko gazteek egin dute. • ELI BELAUNTZARAN

hizkuntza trebetasunen berri eskaintzen dute, eta erosko-poa ere ez zaie ahaztu. Eta herriko bi lagunek galdeketa bati erantzuna eman behar izan diote. Marmari euskara taldea Leitzako gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko sortu den taldea da, eta diotenez, euskararen erabilera bultzatu eta indartzeko, euskararen inguruko kezka areagotu eta horren inguruko informazioa eta hausnarketarako bideak eman nahi dituzte.

Orain aldizkaria kaleratzeko aukera izan dute, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko euskara zerbitzuen diru laguntzarekin eta Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzatik jasotakoarekin. Hemendik aurrera, Goizuetan eta Aranon antzeko proiektu batekin hasiko ote diren pentsatzen ari dira, Euskara Zerbitzuko teknikari David Anautek esan duenez. Baina hango jendeak prest egon beharko luke hori egiteko. Momentuz, zinegotzi batzuei aurkeztu die ideia eta ongi iruditu zaie. Taldeak onartzen badu, datorren alean Aresoko kontuak sartzeko asmoa du Anautek.

→ Eli Belauntzaran

U Leitzako lagunek dagoeneko eskutan dute Marmari aldizkaria. Hilabete batzuk proiektu honekin igaro ostean, izen bera daraman taldeko ordezkariak herrian barna banatu zituzten kaleratutako 800 aleak. 28 orriko aldizkari hau Marmari taldeko bederatzi lagunek prestatu dute. Aldizkariaren eduki gehiena eurek egin dute, baina Eugenio Mihurak Eklipse izeneko komikiarekin lagundu die, eta Allende Arnaizek, diseinu eta maketazioarekin.

Marmari aldizkaria aspertuta dauden lagun horientzat egin dute, eta horregatik eskaintza zabala egiten dute

bere orrietan. Alde batetik, lehen aipatutako komikia aurki daiteke; bestetik, Marmari taldea nortzuk osatzen duten. Juan Ramon Lizarraga eta Arantxa Agirre ere elkarrizketatu dituzte, atzoko Aurreraren eta gaurko Aurreraren arteko ezberdintasunak ezagutzera eman nahian, biak Aurrera elkarteko zuzendaritzan arituak baitira. Bermeon izan berriak dira leitzarrik, eta bertan gertatutako gorabeheren kronika ere idatzi dute argazki eta guzti.

Leitzar gazteak euskararen erabilerari buruz hizketan aritu ziren, eta bildutako iritzia jasoak daude Marmari aldizkariaren lehenengo ale honetan. Inkesta bat ere prestatu zuten euskara taldeko kideek, eta kasu honetan institutuko gazteengana jo zuten beren usteak eta iritzia jakin nahian; hala, hauek euskararekin duten harremanaren datuak argitaratu dituzte.

Hizkuntzarekin jostatzeko hizkuntza trebetasunak edo

herri aldizkariak

Miren Iriarte

Kattalin Totorika, irakurketa bultzatzen

KATTALIN TOTORIKAK Iparraldeko haurren artean irakurketa bultzatzeko egindako lanaz mintzatu da Herria astekaria azken zenbakian. Ondokoak dira Totorikari egin elkarrizketan hark adierazitakoak: «Euskal Kultur Erakundearen ideia bat da. Xirista eta Kometa aldizkariaren desagertzeak zilo haundi bat utzi du haur-literatur alorrean, Iparralde huntan. Ordainez behar zen baitzupada zerbait egin euskarazko irakurketa bultzatzeko, bereziki eskoletan. Eskatu zidaten lan horren egitea. Deusetik abiatutik, indar gu-

ziak eman ditut beraz lan hortan».

«Aurten, Donibane Lohizuneko hiru eskoletan nabil: ikastolan, Urdazuriko eskola publikoan eta San Josep Eskolan, CM 1-CM 2 gela elebidunetako haurrekilari. Hiru hilabete iragaiten ditut bakotxean, orén bat astean, hamar saio eskola bakotx. Ikastola eta eskola publikotik landa, orain San Josep eskolan bukatzen ari dut irakurketa sail hau. Erabakia ginuen kostaldean eramaitea lan hori, nahiko gutti erabilia baita euskara hor».

«Haurrek haxe diote: «Liburuak

maite ditugu bainan irakurtzea ez zaigu gustatzen». Behar zaie beraz gustu hori eman, giro berezi bat sortuz, joko moduan, molde atsegingarri berri batzuz asmatuz, bortxarik gabe. Literatur gune ezberdinak hunkitzen ditugu: elaberriak, ipuinak, olerkiak, kantak... Eta haurrek gogotik parte hartzen dute hortan. Eskoletako irakasle en lanaren osagailu bezala da gure irakurketa lana. Haziak erein behar dira, eta gero ikusi... Bainan intres berezi bat sortuz geroz, atsegina da irakurtzea».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Lisboatik

Moskura (eta 14)

Heldu gara. Gau itxian heldu ere. Literako kidearekin aurretik hitzartua nuen: «Moskura iristerakoan, gutako esna dagoenak iratzar dezala bestea». Goizeko bost eta erdiak izango ziren idazle portugesak, zintzo-min-tzo, astindu bat eman eta xuxurlatu duenean: «Mosku!». Altxatu, argia piztu gabe zer edo zer jantzi, eta ahalik eta zarata gutxien ateraz pasillora atera gara. Hura ez zen Mosku. Ez guk ezagutzen duguna behintzat. Han ez zegoen ez Kremlinik ez Perspektiba Mendelievik. Iluntasun arrunt, apal, soil bat nuen aurrean, mundu guztiko eta gauzez ibiltzen diren trenak eskaintzen ahal duten iluntasun bera, igual-iguala. Ilargiaren bila burua ezker-eskuin mugitu dut, baina han ez zegoen inongo ilargirik. Behaketan pasilloko larrietarako argiek enbarazu egiten zidaten, eta burua kristalean jarri eta eskuekin lagundu naiz zer edo zer ikusteko irrikan. Beste aldean zegoena lautada bat ematen zuten. Horrela marrazten zuten behintzat ikusi ahal nituen izar apurrak. Lerro beltz eta horizontal batek, punta batetik bestera, ezabatzen baitzituen zeruko argiak. Lerroaren azpian, lurraren gainean, oso urrutian, apenas mugitu gabe, argi bat. Noiz-behinka itzaltzen zen balizko etxe bat. «Zuhaitzak» -pentsatu dut-, «zuhaitz hurbilak, nire eta etxearen artean igarotzen ari direnak». Korrika bizian ibiltzen ziren zuhaitz ikusezinak. Bat-batean nire begien niniaren isla ikusi dut kristalean. Kostata, irudia zentratu dut. Betileetako ileek erraldoiak ematen zuten horrela ikusita, mikroskopio baten bidez aztertutako zomorro baten atalak. Eskuekin egiten nuen zulo horretan Moskuk nire niniaren itxura hartu du mementu horretan. «Moskurik ez dago» —bururatu zait—, «Moskuk agoantatzen duen lautada bat dago, hori bai benetakoa eta betirakoa» —bururatu zait—. «Ilargi gabeko gauek mundu guztian barrena iluntasun gogor bera daukate» —bururatu zait—. «Korrika eta presaka ibiltzen diren zuhaitz ikusezin eta lizenik gabeko hauek hango etxeko biztanlearentzat geldirik eta izendunak dira» —bururatu zait—. «Bidaia luzeenaren helmugan zu zeu zaudete, zaren papur bera, opiltzkoa, inongo gehitxerik gabe, ez besterik» —bururatu zait—.

‘Gero’, gerorako

‘Gero’ oporretan irakurtzeko zergatik ez den aproposa argitu digute zazpi literaturazalek

Euskal irakurle arrunta anitzetan saiatu da Axularren Gero irakurtzen. Gaitzerdi. Hasiera interesgarria du liburua. Bertrand de Echaus artzapezpikuaren goraipamena ederra da oso. Ondoren, aitzinsolasa dator, non urdazubiarrak gai arras interesgarriak plazaratzen baititu. Baina berez liburua dena irakurtzen hastearekin batera amore ematen du irakurleak. Izan ere, aszetika liburu bat ez da irakurle arrunt batendako libururik entretenigarriena; are gutiago, oporretako eguzkipean.

GERO-K, BAINA, GAUZA INTERESGARRI anitz ditu bere baitan. Mamia eta azala bereizi behar dira, ordea. Halako lan mesedegarria egin du Patxi Salaberrik, EHUKO irakasle eta idazle aramioarrak, *Axularren historiak* (1998) eta *Haizkora zuhaitzaren erroari kheinatzean* (2000) liburuxoetan. «Lehenengoan pasarte narratiboenak izan zitezkeenak bildu nituen, ipuin politak direlako, benetan ondo kontatuak, bizitasuna daukatenak», erran du Salaberrik. «Bigarrenean, narrazio esparrutik kanpo, Axularren gogoetak, pentsamenduak, esanak eta aforismoak bildu ditut.

Euskal literaturako klasikoak zeintzuk diren galdetzerakoan, Axular da edozein euskalduni etortzen zaion lehen izena. Baina zer da klasikoia izatea? Salaberri-rendako klasikoak dira «literaturak betierekotzat dituen autoreak eta, aldi berean, nolabait, eredugarri izan direnak».

Salaberriren aburuz, klasikoek kultur jostailu bat izan behar dute. Testuari irakurketa ezberdinak ematea da jolastea. Testu batek zenbat eta irakurketa gehiago ahalbidetu hainbat eta klasikoago bihurtzen zaigu. Axularrek, Salaberri-riren ustetan, bere estigma aszetikoa ahaztu gabe, aukera anitz ematen du berarekin jolasteko.

Klasikoak alboratuta ditugu

Dena den, ematen du liburu klasikoia ez irakurtzeko liburua dela. Euskal literatura ez da salbuespena. «Klasikoak alboratuta ditugu dauka-

ten mezuagatik, batetik, eta, bestetik, ez daudelako literatur genero salgarrien artean», dio Salaberrik. «Axularren Gero egungo irakurleari geroz eta irakurgaitzagoa egiten zaio. Gaurko irakurleak gaia ez bazaio interesatzen berehala alboratzen du liburua».


Horregatik atera ditu Salaberrik bere bi liburuxoak, *Gero* irakurterazagoa egiteko. Salaberrik azaldu duenez, «*Gero*-k duen mamitsuena hor agertzen da. Dena den, literaturazaleak osorik irakurri beharko luke *Gero*. Baina irakurle arruntari ezin zaio horrelakorik eskatu, gogorregia izan daiteke bestelako motibaziorik gabe».

Hortaz, argi du Salaberrik, *Gero* liburua, bere handitasunean, ez dela hondartzara eramateko modukoa. «Gehiegixto litzateke», dio. «Akaso, nire bi liburuxoak eraman daitezke, ez baitute eskatzen irakurlearen diziiplina zorrotzik. Eramangarriak dira, baita pisuaren aldetik ere. Baina benetan inoiz autoreak ezagutu nahi duenak onena du haren etxera joatea eta hark idatzitako irakurtzea». Besterik ez bada ere, Salaberriren liburuxoak baliagarriak izan daitezke eguzkipeko irakurlearen kontzientzia gaiztoa baretzeko (halakorik baldin badu, noski). Axularren liburuaren irakurketa gerorako utz dezake, negurako edo.

Patxi Salaberri:

«Axularren Gero egungo irakurleari geroz eta irakurgaitzagoa egiten zaio. Gaurko irakurleak gaia ez bazaio interesatzen berehala alboratzen du liburua»

→ Asier Azpilikueta



Igerilekua edo hondartza ez omen dira Axularren Gero leitzeko tokirik onenak. Oporretan, irakurle arruntak liburu arinagoetara jo ohi du. ● INAKI VERGARA

ALDERAK:

1. Axularren Gero irakurria duzu?
2. Gustukoa duzu?
3. Zer da klasikoia izatea, ez irakurtzeko moduko liburua iza?
4. Gero igerilekura edo hondartzara eramateko moduko liburua ote da?
5. Zuk zein eramanen duzu oporretan?



► Aingeru Epaltza idazlea

«Perbertsioa izan daiteke ‘Go’ hondartzara eramatea»

1. Irakurri nuen orain dela hogeit urte edo, orain Villasanteren itzulpena nuelarik
2. Orduan prosa horrek liluratu ninduen. Niretako zerbait berria zen, sekula irakurria. Nik ez nekien euskaraz horrelako gauzak erran zitekezenik ere. Gero, berriz ere irakurri eta beti izan dut Salaberrik atera dituen liburuetan.
3. Galde daiteke ea gaztelaniaz ere klasikoak irakurtzen ote diren. Axularrek baina kontakizun politak eta Salaberrik eskura utzi zituen bere liburuan. Bestela, zail samar du Axularren gauza interesgarriak irakurri nahi dituen gaurko irakurlearengana heltzea.
4. Ez dut uste. Bestelako baldintza batzuk behar dira hondartzan irakurtzeko. Hala, entretenigarria izan daiteke Axularrek haragiaren bekatuak dituen arriskuez ohartarazten delarik, begirada altzatzea eta inguruari begiratzea. Perbertsioa izan daiteke hori.
5. Itzulpenen bat eramanen nuke, oso zaletua bainabil aspaldi honetan. Bestela, beltzaren urtea, Joxe Enrike Urrutiarena.



► Patziku Perurena idazlea

«‘Gero’-ri fama gehiegi eman zaio»

1. Aspaldi irakurri nuen. Euskararen mundu honetan sartu berri hartan, nik andregai banuen eta horrek anaia oso euskaltzalea zuen, Josetxo Lizartza. Horren etxeko ganbaratik lapurtu nuen Gero. Jakin aldezkarriak ateratako edizio bat zen, tapa gorrikoa. Uste nuen liburu hori etxean izanen nuela. Eta ez dut inon harrapatzen, baina berriz irakurtzeko gogoia dut. Orain oso famatua egiten ari da. Kuriosidadea sortu zait.
2. Gustukoa dut, bai, baina Gero-ri fama gehiegi eman zaiola uste dut. Liburu interesgarria da. Besterik ez. Eta, esate baterako, askoz gehiago gustatzen zait Orixeren euskararen erabilera Gero-n azaltzen dena baino. Gaia alde batera utzita, Axularren estiloa oso barrokoa da, oso anpuloso eta oso latinoa. Ez zuen euskara tipikorik erabili, baizik eta latinen kopia bat. Euskara estilo aldetik pixka bat ezagutu nahi duenari ez nioke sekulan esango Axular irakurtzeko besteak baino estilo hobe eta jatorra duelakoa.
3. Nik urte guzian egiten ditut oporrak eta urte guzian irakurtzen dut pixka bat.



► Patxi Larrion editorea (Susa)

«‘Gero’-ren pasarte solteak leitzea merezi du»


1. Osoki behin bakarrik irakurri dut. Gero irakurketa solteak maiz egin izan ditut.
2. Gustukoa dut, bai. Esateko moduak hain dira harrigarriak eta gustagarriak. Baina jende askori irakurgaitza gerta dakioke erabiltzen dituen erregistroengatik eta zabaltzen duen ideologiagatik. Baina pasarte solteak leitzea merezi du. Horregatik, Salaberrik egin duena oso egokia iruditzen zait.
3. Ez, inolaz ere ez. Zorionez, azken hamarkadan publikatu diren zenbait liburu klasiko ere bihurtu dira gurean. Liburu batzuk, bi, hiru eta lau irakurketakoak bihurtzen ari dira. Eta orain arte klasikotzat jo izan ditugun beste mendeetako liburu horiek, zer esanik ez, irakurketa anitzeko liburuak izan daitezke.
4. Zergatik ez? Hor arazoa da hondartzara eta mendira euskaldunok eramaten ditugun liburuak gehienbat erdarazko liburuak direla.
5. Normalean etxean leitzen dut, eta mendian ez. Dena den, udarako liburu bat gomendatzearen, Xabier Montoiaren Hezur gabeko hilak aipatuko nuke.



► Gari Berazaluze editorea (Txalaparta)

«Hobe litzateke Axular bezala idatziko bagenu»

1. Osoki behin bakarrik irakurri dut. Gero irakurketa solteak maiz egin izan ditut.
2. Gustukoa dut, bai. Esateko moduak hain dira harrigarriak eta gustagarriak. Baina jende askori irakurgaitza gerta dakioke erabiltzen dituen erregistroengatik eta zabaltzen duen ideologiagatik. Baina pasarte solteak leitzea merezi du. Horregatik, Salaberrik egin duena oso egokia iruditzen zait.
3. Ez, inolaz ere ez. Zorionez, azken hamarkadan publikatu diren zenbait liburu klasiko ere bihurtu dira gurean. Liburu batzuk, bi, hiru eta lau irakurketakoak bihurtzen ari dira. Eta orain arte klasikotzat jo izan ditugun beste mendeetako liburu horiek, zer esanik ez, irakurketa anitzeko liburuak izan daitezke.
4. Zergatik ez? Hor arazoa da hondartzara eta mendira euskaldunok eramaten ditugun liburuak gehienbat erdarazko liburuak direla.
5. Normalean etxean leitzen dut, eta mendian ez. Dena den, udarako liburu bat gomendatzearen, Xabier Montoiaren Hezur gabeko hilak aipatuko nuke.



► Jose Angel Irigarai, editorea (Pamiela)

«Neguan edo udazkenean irakurri behar da ‘Gero’»

1. Bai, aspaldi irakurri nuen. Nekoiz bukatzen ez den irakurketa da, beti aurkitzen duzu harrizten zaituen pasarteren bat. Harrobi biziki handia da euskarari dagokionez.
2. Gustukoa dut, bai, eta egiten diren egokitzapenei esker beti aurkitzen dira gauza berriak. Horiek laguntzen dute Gero-ren bestelako irakurketak egiten.
3. Gero ez da hondartzara edo mendira eramateko modukoa. Astunegia da. Gauza arinagoak behar dira. Gero, euskara aldetik ederra da, baina gai aldetik astuna da, interes gutikoa. Udan ez, neguan edo udazkenean irakurri behar da Gero.
4. Baten bat eramatekotan izar beltzaren urtea eramanen nuke, Joxe Enrike Urrutiarena. Istorio tiikiak kontatzen ditu aski modu politean. Dena den, oporretan nik nahiago dut naturak berak eskaintzen duen liburua irakurtzea.



► Xabier Olarra editorea (Igela)

«‘Gero’ mendian irakurri nuen»

1. Irakurri dut, bai. Osorik irakurri dudak ez dakit, baina ordu franko sartu ditut Gero-n.
2. Oso gustukoa dut, estiloagatik batez ere. Oso gauza bihurriak kontatzen ditu euskaraz.
3. Batzuek beharrezkotzat jotzen dute liburu hauek irakurtzea, eta euren buruak behartzen dituzte. Baina, gaiagatik edo, jende gehienari ez zaio gustatzen. Gaiak arinagoa izan beharko luke gehiengoari gustatzeko.
4. Igual ez. Baten bati lotsa emanen lioke Gero hondartzan irakurtzea. Baina nik oporretan irakurri nuen, mendian.
5. Nobela beltzaren bat eramanen nuke. Azkar eta problemarik gabe irakurtzeko modukoak dira. Esate baterako, Keaz egindako erretratua, Bill S. Ballingerrena.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Etxalarko euskal idazleak (eta II)

Pasa den astean Etxalarko bi euskal idazleren berri laburra eman genuen; gaurkoan, berriz, beste etxalartar ospetsu baten berri emanen dugu, hau da, Jose Maria Aznar Lopez PP alderdiko lehendakariaren aitatia zen Manuel Aznarrena hain zuzen ere.



Manuel Aznar Zubigarai Etxalarren jaio zen, 1894ko azaroaren 18an. Iruñeko eta Madrilgo apezgaitegetan Humanitateak ikasi ostean, Zuzenbidea egin zuen Valladolideko unibertsitatean. Haatik, Aznarren langintza ez zen arlo juridikoan garatu, kazetaritzarenean baizik. Bere lehenbiziko lan ezagunak Bilboko *Euzkadi* eguneroko jeltzalean agertarazi zituen, *Mis crónicas* sailean, Imanol sinadurarekin. Lehenbiziko Mundu Gerratean, ordea, Gudalgai izenordearekin, alimaleko ospea bereganatu zioten kronikak idatzi zituen Frantziako zein Belgikako fronteetatik. Behin Bilbora itzulirik, Jesus Sarria jeltzalearen *Hermes* aldizkarian idatzi zuen, Aznar'tar Imanol beza la sinatuz. Ordu arte Aznar jeltzale bat dugu oraino, Bilbon estreinatu zen *El jardín del mayorazgo* antzezlan abertzalearen egilea. Alabaina, 1918rako Madrilgo *El Sol* egunkari aurrerakoia- ren zuzendari daukagu, eta orduan hasi zen Aznarren bilakaera ideologikoa ezkerretik eskuinera eta Euskaditik Espainiara.

1921ean Marokoko gerratean lekuko eta korrespondentsal izan ostean, eta Primo de Riveraren diktaduratik ihesean, Kuban izan genuen, hango *El País* (1922-1926 eta 1928-1931) eta *Diario de la Marina* (1926-1928) egunkarien zuzendari gisa. Errepublikak garaian berriz ere Madrileraturik Azaña errepublikazale moderatuaren aldeko agertu zen, eta horrek 36ko gerratea hasi zenean anarkistek atxilotua izatea ekarri zion. Juan Negrin sozialistak eginiko ahaleginei esker askatu zuten; alabai-

na, handik gutxira falangistek Zaragozan atxilotu zuten berriz ere, eta fusilatuko zuketzen Francok askatzeko agindua eman ez balu. Harrezkeroztik, Francori guztiz atxikia izan zen beti, diktadurarako langile porrokatu bilakatu zelarik.

Gerra bitartean, Habanako *Diario de la Marina* eta Buenos Airesko *La Nación* egunkarietako korrespondentsalarenak egiteaz gainera, *El Heraldo de Aragón* zein *El Diario Vasco* egunkarien zuzendaria izan zen. Gerra ostean *Semana* aldizkaria sortu zuen, *La Vanguardia*-ko zuzendaria


tzen diogu euskaraz taxutua, nahiz litekeena den baten bat gehiago egotea nonbait ahazturik, han-hemenka atez ziren gerra aurretiko argitalpen jeltzaleetan, hala nola *Euzkadi*, *El Día*, *La Voz de Navarra*, *Amayur*, *Napartarra* edota *Bizkaitarra*. Idoro dugun Manuel Aznarren euskal idazki hori olerki bat da, sei seikotez osaturiko poema laburra, hain zuzen ere, Iruñeko *Napartarra* astekarian agertu zena, 1912ko irailaren 14ko 89. zenbakian hain zuzen ere, honako izenburu honekin, *Gaiztokian*, hots, infernua, Axularren lana ezagulezat argikiro salatzen diguna bederik ere.

Hona hemen espainiarren lehendakariaren aitaxi euskaldunak idatzi zuen perla hau:

Gero ain ederrean / Alako gizon deunak / Ikus omen zuan / Zurgua gaiztokiko / Suaren erdian. Zurguaren beitiko / Lenbiziko mallan / Konde edo Jaun aundia / Yarririk zegoan / Ta aren gain beste saspi / Malla bakoitzean. Lenbizikoak gaizki / Ta bide gaiztoan / Zeuzkan on guziak / Ebatsi zituan, / Ta etzituan biurtu / Eriotz-aldian. Bertze saspiak ere / Ara yoa ziran / Lenbizikoagandik / Onak orturikan / Etzituztelako itzul / Eriotz-aurrean. Emen ere norbaitek / Ebatsi zituan / Euzkadiren onkiak / Beraren ondoan / Darraite aunitz ta aunitz / Lapurketa ortan. Itzuli bear bada / Ebatsi danean, / Edo bertzelaz sartzen / Bada sulezean... / An daude gure etsayak / Suaren erdian>.

izan zen, eta baita zenbaitetan Efe agentziako zuzendaria ere. Urte horietan, bestalde, diplomatiko moduan jardun zuen behin baino gehiagotan, bai Estatu Batuetan, bai Guatemalan, Santo Domingon edota Marokon. Idazle oparoa, liburu ugariren egilea dugu, garrantzi handienekoak Francori buruz egin zuen biografia zein 36ko gerrateaz idatzi *Historia militar de la guerra de España* (1940) izan zirelarik.

Aznarri lan bakarra ezagu-



etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo



Herodotogandik guganaino

I LE DITXOSOSKOA: «...eta alde bietako asko erori ondoren, lazedemon-darrak irten ziren garaile; ordudunik argostarrek, lehen ilea luze zerramatelarik, kaskoak moztuz, madarikaziopeko lege hau ezarri zuten: Thyrea berreskuratu arte argostar inork ez zezala ilea luzatzen utzi. Lazedemon-darrek, aldiz, kontrako legea: ordurarte ileluze ez zirenak, ordutik ileluze egin baitziren». G. Arestik ere hala esan zuen: «euskara salbo ikusi arte, ez dut kenduko bizarra». Gauza polita izanen litzake, historian barrena, munduko bazter guztietan, jendeak bere gorputzeko ile santuekin zenbat istilu erabili dituen liburu batean jasotzea.

MIKEL ETA ZEUS: «... Baby-longo Zeus Beloren santutegian, azken dorrean, kapera haundi bat dago, eta kapera ongi jantzitako ohe bat, eta alboan urrezko mahai bat; han ezin du ezzein gizasemek gaurik pasa, herri bereko emakume bakarrak izan ezik: jainkoak andre guztien artean aukera dezakeenak, hain zuzen, jainko horren apaiz diren khaldearrek diotenez». Aralarko herensugezar hari ere hala eramaten omen zioten, aldian aldika, Barranka aldeko herri bakoitzean bereizitako neskatarik ederrena. Zer ez zuten asmatzen ordea, fraile zar haiek, erlijio ilunen izenpean larrua guri gozatzeko!

ANIMAK BETI POBRE: «...Nikrotis erreginak, jenderik gehiena igarotzen zen hiriko atearen gainean beretzat ehorzlekua prestatu zuen, atalburuan hitzok zizelatuz: «Nire ondoren datorren Babylongo erregeren batek dirubeharrik izan baleza, ehorzlekua irekiz, nahi haina har beza; baina ez dezala ireki, beharrean egon ezik, ez baitu hobe izango». Ehorzlekua mugitu gabe egon zen erresuma Dariogana iritsi arte; honek ordea, arrunt tentatu, eta ireki egin zuen ehorz-

lekua, eta diru orde zorpua eta hitzok aurkitu omen zituen barrenean: «Diruz ase ezin eta lotsagabe ez bazina, ez zinituzke gorpuen jarlekuak irekiko».

Askotan adituak dituk: «Izuarri aberatsa? Bai, bai, biñodenak emen utzitte yoa bear-ko do orrek el!». «Diruketa aundik itten ai dela, lasai, lasai; ez ttik beste mundura eramín, ez!». Fede eskasa hagitz, gurea. Zinez proba ederra izanen bailitzake, benazko fededun guzia, eternidade osorako bere diru eta ondasun guziekin batera lurperatzen dela ikustea. Hortara izanen genuke kanposantua, gure arimen zinezko bizileku (BAN-KU). Baina ez dut ezagutzen erlijio horrenik inon.

NESKA SALMENTA: Babilonian, urtean behin, ezkonsoira heldutako neskatarik, denak bildu eta, plaza batera eramaten zituzten, eta beren inguruan gizonezko pila jartzen zen. Aldarrikariak, ederrenaz aurrera, banan banan zutiaraziz, hasten zuen bere eskaintza, eta mutilik aberatsenek elkarren lehian sekulako dirualdiak botatzen zituzten neskatarik ederrenak berenganatzeko aiherez. Gero, itsusinskona hartzen zuenari, andregaiak gainera dirua ematen zitzaion, zenbat eta itsusiago, orduan eta diru gehiago.

Diru hori, jakina, alde aurretik ederrenen subastan aterea izaten zen. Hori da zinezko solidaritza, hori: neskatarik ederrenei eta mutilik aberatsenei esker, ezkontzen ziren neskatarik itsusienak eta mutilik pobreenak. Oraingo feminista solidarioei esan behar. Ui, ui, ui!

Mende honetan gure inguruko (Irurtzun, Tolosa, Lesaka) feri askotan halatsukoak egiten ziren oraindak. Ni neroni ezagutua nago Leitza, miloierdian ezkongai atera zen neskatxa, eta inork ez hartu. Zeinen harroak eta tontoak garen, motteilek!

ziria

• Motxorrosolo •

Katakunbak


Aurki, agiri andana aurkeztu beharko da ezer antolatze-kotan. Administrazioak zernahi tresna ditu eskura edozein ekinbide itozteko ahaleginetan. Orain artekoan, hiri buruzagia izan da, behar horretan hobekien saiatu dena. Katakunbak ere arautu nahi dituzten honetan, hasi besterik ez da egin.

Marcos Reparaz

ZIZKERTE KULTUR TALDEKO KIDEA

«Jendeak eskatzen duenaren arabera itxuratuko da aldizkaria»

Zizkerte Arbizuko Kultur Taldea aurren sortu da, eta bere lehen ekimenenetako bat Oihan Ederra aldizkaria kaleratzea izan da. Marcos Reparaz da aldizkariaren arduradunetako bat.



INAKI VERGARA

ALDIZKARIAK BEREZIKI folklorea eta etnografia lantzen ditu. Lehenbiziko ale honetan, 60 orrialdetan barrena, besteak beste, Arbizuko pasadizo historikoak, argazki zaharrak, kantak eta etxeen izenak bildu dituzte.

■ Nondik datorrio izena aldizkariari?

Arbizun bazegoen eta bada-go defentsa dorre bat Oihan Ederra izena duena. Horren historia oso zaharra da. Inork ez daki zehazki noiz egin zuten, baina XIII. menderako dagoeneko bazuen izen hori. Orduan Nafarroako erreinuko muga zegoen Arbizon, mugaldea zen, eta nobleak eta buruzagi militarrek bizi izan ziren dorrean. Atzoko eta gaurko kontuak lotzeagatik aukeratu genuen izena.

■ Zer-nolako edukiak ditu aldizkariaren lehen zenbakiak?

Kontu zaharrak bildu ditugu. Izan ere, jendea erakartzeko modurik hoberena zen ber-

«Pentsatzen dugu gauza asko daudela estalita, paper artean, eta merezi dutela jendeak ikustea»

tako kontu zaharrak ateratzea. Hasieran esplikatzeko dugu zer den Oihan Ederra eta, ondoren, aipatu dugu XIV. mendeko Gartzia Handiaren bidelapur koadrila, 28 lagunekoa. Mugaldean beti sortu dira horrelako kontuak. Lizarra aldean osten zituzten ganaduak Lazkao aldera eramaten zituzten, eta gero hangoak honantz ekartzen zituzten. Garai haietan gogorra zen bizitza, eta jendea ere hiltzen zuten. Hamabost bat lagun hil zituzten.

1349. urtean haietatik lau urkatu zituzten Lizarran. Besteek, ikusten denez, ospa egin zuten. Hori garaiko pergamino zahar batean bilduta dago. Aldizkarian atera dugu argazki bat paper horrena.

Guk pentsatzen dugu gauza asko daudela estalita, paper artean, eta merezi dutela jendeak ikustea.

■ Zenbatetik zenbatera atera da Oihan Ederra?

Oraingoz hau atera dugu,


eta ikusiko dugu hurrengoak noiz atera. Jendeak zer eskatzen duen ikusi behar dugu. Gure asmoa da aldizkarian atzoko, gaurko eta geroko kontuak ateratzea. Gauza zabala da. Baina herriak esanen du. Aldizkariari forma ematea etorriko da herriak eskatzen duenaren aldetik.

■ Zizkertek aldizkaria atera, Arbizuko ludoteka sortu, rally fotografikoa antolatu eta argazki zaharren erakusketa paratu du. Badi-rudi taldeak martxa hartu duela.

Hori da, martxa hartzea. Talde bat sortzen denean, bulego batean sartuta baldin bazaudete akaso ez da ikusten zure lana. Kanpora atera behar duzu, jendeari ezagutzera eman, gauzak erakutsi. Momentu honetan jendea ari da Zizkerte ezagutzen. Gure egitasmoak herrikoiek dira; argazki erakusketa, kasu. Erakusketa horretan 500 argazki daude. Jendea egunero joaten da argazkiak ikustera. Eta gero jendeak esaten dizu berak ere badituela argazkiak erakusteko. Ikusten ari gara dagoenarekin ez dela nahikoa eta beste hainbat egin beharko dugula urte bukaeran edo. Jendeak eskatzen duenaren arabera egingen dugu lan.

→ Asier Azpilikueta

Kontu zaharrak, hasteko



ZIZKERTE TALDEAK KALERATU Oihan Ederra aldizkarian Arbizuko kontu zaharrak bildu dituzte batez ere. Hala, Gartzia Handia eta Arbizuko lapur koadrilaren andantzak eta mudantzak kontatu eta gero, 1589tik 1826ra herrian gertatu ziren hainbat pasarte bitxiren berri ematen dute. Horretarako, Iruñeko Elizbarrutiko Artxibora jo dute. Ondoren, Arbizuko etxeen izenen bilakaera dute mintzagai, hau da, nola Artechenea zena (1797) Artetxeneakoa (1850) izendatu zuten, gero Artitxonia (1957) izenetik pasatuz Artitxonekoa izateko.

Argazki zaharren erakusketa ere paratu dute Arbizuko udaletxeko sabaian, eta horietako 30 Oihan Ederra aldizkarian bildu dituzte. Arbizuko aspaldiko ume jolasak eta herri kantak ere jaso dituzte, baita Soledad Olejua maistraren istorioa ere. Bildumekin akitzeko, Arbizuko koadrilen izenak eta argazkiak paratu dituzte aldizkarian, 1938tik 1985era, *Beti Yaten-etik Gau-Ero-ra*. Azkenik, iragana egungoarekin lotzeko, Sakanako sokatira taldekoei egin elkarrizketa bat dakar Oihan Ederra aldizkariak.

soslaia

Arbizuko udaletxeko goiko aretoan herriko 500 bat argazkiren erakusketa atzera begirakoa ikusgai dago egunotan. Erakusketa hagitx arrakastatsua izaten ari da. Egutero makina bat arbizuar joaten da udaletxera argazkiak goitik behera aztertzeko.

Zizkerte Kultur Taldea martxo inguruan sortu zen. Egun, hamar bat lagun ari dira taldean buru-belarri lanean. Aurrera begira, gehiago izatea espero dute. Laguntzarik ez zaie faltako, erakusketaren prestaketan ikusi ahal izan dutenez. Bestetik, aldizkariaren 500 ale atera dituzte, eta saltzen ez dituztenak Udalak hartuko ditu.

